

ORDUTEGI ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK - AJA 52. Art.

1. Ordutegiak mailen arabera esleituko dira, betiere beheragoko mailatik gorakora.
2. *Ordutegiak ikastaroen arabera esleituko dira, betiere behetik gorenera. Banda eta Orkestrako ikasleen betebeharra izango da talde horietatik libratu ahal izateko irakasgai teorikoetara joatea.*
3. Maila bakoitzaren barruan, lehenik ordutegia hartuko da kontuan, zonakatze honen arabera:

1. Gunea	Ataun, Bergara, Eibar, Legazpi, Mutriku, Zumarraga.
2. Gunea	Amezketeta, Azpeitia, Beasain, Deba, Elgoibar, Getaria, Lazkao, Zestoa, Zumaia.
3. Gunea	Anoeta, Asteasu, Billabona, Hondarribia, Ibarra, Irun, Irura, Oiartzun, Orio, Tolosa, Zarautz, Zizurkil.
4. Gunea	Astigarraga, Andoain, Errenteria, Hernani, Lasarte, Lezo, Pasaia, Urnieta, Usurbil Gune.
5. Gunea	Donostia.

Irizpide horri heldu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasleak eskolatuta dauden ikastetxearen matrikulazio-ziurtagiria aurkeztea.

4. Hirugarren irizpidea honako irakaskuntza hauei bakarrik aplikatuko zaie: lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

5. Ikasturte bakoitzaren barruan, Eusko Jaurlaritzak urtero onartzen duen letra erabiliko da hautaketaren edo berdinketaren ordena ezartzeko.

6. Adinez nagusiak diren ikasleek, Kantua, Gitarra Elektrikoa, Baxu Elektrikoa eta Organoa espezialitateetako batxilergoko ikasketak egiten ari direnek izan ezik, honako irizpide hauek erabiliko dituzte ordutegiak esleitzeko:

- Lehenengoa: lehenengoa dute ikasle adingabeek. Zonifikazioa egiaztatzen duen agiria matrikularen frogagiria da.
- Bigarrena: adinez nagusi diren gainerako ikasleen kasuan, zonakatzea egiaztatzeko agiria erroldatzea izango da. Eta ikasturte bakoitzean Eusko Jaurlaritzak urtero onartzen duen letra erabiliko da hautaketaren edo berdinketaren ordena ezartzeko.

Egiaztagiria helbide honetara bidali beharko da: jefedeestudios@conservatorioescuderoeus

Dokumentua bidaltzeko epea ekainaren 23an amaituko da, 19:00etan.

Mesedez, ez bidali 5. guneako egiaztagiririk. Ez da beharrezkoa.

BERDINKETA HAUSTEKO LETRA

2024ko urriaren 23ko Ebazpenaren arabera, 2025-2026 ikasturtean alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letra "R" da eta berdinketa kasuetan, letra horrek zehaztuko du nor izango den lehenengoa, abizenen eta izenaren arabera.